

BEHIN-BEHINEKO EBAZPENA, 2020ko azaroaren 26koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzetarako deialdia ebatzen duena (2020-2021eko ikasturtea). Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz.

Hezkuntza sailburuaren 2020ko irailaren 29ko Aginduak gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzetarako deia egiten zuen 2019-2020 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa egiten ari diren ikasleak baliatu ahal izango dira gailu horietaz.

Agindu horren 10. artikulua arabera, eskabideak egiaztatu ostean, emandako dirulaguntzei buruzko behin-behineko ebazpena emango du Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak; bertan, ikasleen identifikazio-datuak eta emandako zenbatekoak adieraziko ditu. Horretaz gain, ukatutako dirulaguntzen zerrenda ere sartuko du, ukatzeko arrazoia adierazita. Ebazpenaren jakinarazpena argitaratuko da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan, honako web-helbide honetan: <https://euskadi.eus>.

Aurkeztutako eskaera-espedienteak egiaztatu ostean,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei behin-behineko diru-laguntzak ematea.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei behin-behineko diru-laguntzak ukatzea.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ikastetxeetako ikasleei behin-behineko diru-laguntzak ukatzea. Ikasle horiek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuten unibertsiteateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta -laguntzetarako 2019-2020 ikasturteko deialdian (eskola-materialen osagaian). Errekurtsio horren ebazpenaren arabera diru-laguntza hau lortuko dute ala ez.

Laugarrena.- Eskabide bakoitzari esleitutako zenbatekoa behin-behinekoa da, eta aurkeztutako alegazioak ebaztearen baldintzapean egongo da.

Bosgarrena.- Emango den guztizko diru-kopuruak aurrekontua gainditzen du (1.528.000,00 euro). Lehen aipatutako Aginduaren 5. artikulua arabera, eskatzaile bakoitzarentzako laguntza berrehun (200) euro izango da gehienez, eta muga izango da gailu bakoitzaren fakturaren bidez justifikatutako diru-kopurua. Irizpide horiek aplikatu ondoren eman beharreko laguntzetan ateratzen den guztizko kopurua adierazitako aurrekontu-kreditua baino handiagoa bada, onuradun bakoitzari kalkulatu zaizkion zenbatekoak proportzioan murriztuko dira, laguntzen guztizkoa aipatutako mugara egokitu arte.

Seigarrena.- Eskatzaileek hamar egun izango dituzte, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzeko agindua ematea. Argitalpen horrek jakinarazpenaren efektua izango du hurrengo egunetik aurrera.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2ESM-AMST bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2ESM-AMST en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 26an

Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO

ERANSKINAK

1.ERANSKINA: EM ANDAKO DIRULAGUNTZEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA.

2. ERANSKINA: UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA.

3.ERANSKINA: UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA. GORA JOTZEKO ERREKURTSOA AURKEZTU ZUTEN UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEAK ESKOLATZEKO IKASKETA-BEKA ETA – LAGUNTZETARAKO 2019-2020 IKASTURTEKO DEIALDIAN (ESKOLA-M ATERIALEN OSAGAIAN)